



## ■ HERRI GALDEKETA GOIZUETA ETA ARANO

# %60tik gorako partehartzea Goizuetan eta Aranon, beste inon baino gehiago

Partaidetza haundiena izan zuten Urumea bailarako bi herriek atzo, Nafarroan egin ziren galdeketa guztien artean: %63,48ak bozkatu zuen Goizuetan, eta %61,46ak Aranon. Bietan, gainera, baiezkoa nagusitu zen, erantzun beharreko bi galderetan.





FESTA giroan igaro zuten atzoko eguna, Aranon eta Goizuetan, Gure Esku Dagok antolatutako herri galdeketa tarteko. Eta asko izan ziren, bi herrietan, erabakiaren festa horretan parte hartu zutenak: %60tik gorakoa izan zen partehartzea bietan; beste inon baino haundiagoa, atzokoan. Izan ere, 24 herritan izan zen galdeketa, eta Aranon eta Goizuetan lortu ziren partehartze datu nabarmenenak: 405 lagunek eman zuten botoa Goizuetan (%63,48), eta 59 lagunek Aranon (%61,46).

### Baiezkoa nagusi, bi galderetan

Bi galdera zeuzkaten erantzuteko, eta bi galderetan, baiezkoa izan zen nagusi, bai Aranon eta bai Goizuetan. Aurrenekoari (*Nahi al duzu Nafarroako herritarrok gure etorkizun politikoa modu askean erabakitzea?*), %95ak erantzun zion baietz Goizuetan (384 boto), eta %92ak Aranon (54 boto).

Eta bigarren galderari, bakarrik erantzun behar zioten, aurrenekoan baiezkoa eman zutenek. Hauxe zen galdera: *Nahi al duzu Euskal Herri libre bateko herritarra izan?* Eta horretan ere, nabarmena izan zen baiezkoaren aldeko hautua: %96ak Goizuetan (368 boto), eta %91k Aranon (49 boto).

Mendialde osoa hartuta ere, ez ziren bestelakoak izan datuak. Partehartzea %35,62koa izan zen, hori bai; baina bozka eman zutenen artean, %90,70ak bi galderetan erantzun zuen baiezkoa. ■



Oztoporik ez zuten aurkitu goizuetarrek, bozkatzera joateko.



Egun osoan hurbildu ziren hautestontzira, aranoarrak.

### Ginekologoa daukazu Hernanin, María Gregorio Alzua medikua

Hernaniko mediku zentroan (Urbietan kalea 18, behean)

- // Urteroko azterketak
- // Haurdunaldi kontrolak
- // Erditzeak
- // Kirurgia
- // Amniozentesiak
- // Antisorgailuen kontrola
- // DIU...
- // Azkura, onddoak

Hitzordua eskatu  
943 55 76 72ra  
deituz

ORDUTEGIA  
10:00etatik 13:00etara  
eta 16:00etatik 18:30etara



### OINDI

Astelehenetik ostiralera  
08:00etatik aurrera  
irakita

taberna

NAGUSIA, 25  
HERNANI  
943 557 509

### Samitek

Balago makinaren salmenta eta mantentzeak  
samitek@samitek.es  
www.samitek.es

INFORMATIKA  
SAIL BERRIA

TOSHIBA

943 11 77 44

Dokumentuen kudeaketa  
Ez galdu paperak



### HATOR

AHOLKULARITZA

Fiskala, laborala  
eta Kontabilitatea.

Gure zerbitzuak euskaraz  
jasotzeko aukera duzu...

MAPFRE ASEGURUAK

Andre kalea 60, Hernani  
Tel: 943 55 43 12  
hator@euskalnet.net

☎ | TAXIAK: 943 550093 | UDALZAINGOA: 943 248900 | DYA: 943 464622 | AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korroa Goizueta-Hernani: 948 514037 | ANBULATORIOA: 943 006666 - 943 203020 | JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK: 943 331103  
✚ / Egunez: A. Etxebarria Andre kalea, 48 (Hernani) 943 551793 / Gaeuz: Etxebeste Elkano, 9 (Hernani) 943 552087

**EGURALDIA**  
**GAUR** Hego-ekialdeko haizea ibiliko da eta bero egingo du bazter guztietan, baita kostaldean ere. Temperatura maximoak oso altuak izango dira. Arratsaldean behera egingo du zerbait. **Min.18° / Max.37°**  
**BIHAR** Berdin jarraituko du eguraldiak. Goizean eta eguneko erdiko orduetan zerua laino gutxiarekin egongo da. Arratsaldean bero-lainoak garatuko dira. **Min.20° / Max.33°** (euskaime)

## TILOS 7 PASA



Txapeldun eta azpitxapeldunak beraien txapela eta sariekin Tilosetako frontoian.

## Laugarrenez txapeldun, Ramos eta Zubimendi

Endika Ramos eta Aiheko Zubimendik laugarrenez irabazi dute Tilos 7 Pasa pala txapelketa, finalean Salaberria eta Gastesi 22-20 menderatu ondoren, final borrokatu eta estu batean. Bigarren mailako finala, Irazustabarrena-Lujanbio bikote mistoak irabazi zuen. Eta nesketan, Alaitz eta Idoia ama alabek ez zuten hutsik egin. ||



Ramos eta Zubimendi txapela janzten.

## JASOTA BEZALA

✓ Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa ✓ Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira ✓ Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu ✓ Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak.

## Konfirmatua: Hernani herri erdalduna (1)

Konfirmatu egin du 2016ko Soziolinguistika Klusterraren azken azterketak: Hernanin euskeraren erabilera lotsagarri jaitsi da. Titular hutsa ez da. 40 urteren ostean, Hernani ez da bere populazioaren erdira ere iristen euskeraren erabilera. Askoren haserrea sorrarazten duen bilakaera logikoa da. Segmentu demografiko guztietan beherakada nabarmena izanik, okerrena haurren gertatu da. Eskolak euskera irakasteko balio izan

du, baina ez euskalduntzeko; eskola barruko tresna komunikatibo hutsa (ikasle-irakasle komunikazioa) bihurtu da. 'Irrien politikak' ez du funtzionatzen gizarte lasaitzeko baizik. Ezta autokontzientziak ere.

Hainbat iritzi kezkarri eman ziren datuon aurkezpen bileran: «Ni euskera hutsen bizi naiz Hernanin eta ghetto batean sentitzen naiz», «Frankoren aurretik herritarretan euskera hegemonikoa bazen, gaur egun, grafikoko fluktuazio ttikiek konformatzen gara, herriaren euskalduntzearen ordez»,

«etorkinen eragina ere azertu behar da jaitsiera inportante honetan» (Klusterreko teknikariak).

Gazteen artean ere ez da inolako grifiek nabari, katalan gazteak ez bezala. Badakigu neurriak hartzen ez badira, inertziak gure aurka doazela, gure erresistentzia maila disolbatuz. Baratzean lanari uzten zaionean belar txarrek dena jaten bukatzen duten bezala, ez dezatela pentsa euskeraz irakatsi eta nahikoa dela.

Maddi Etxebarria Galbete

## IRAGARKI MERKEAK

Pisua salgai Sagastialden, 45 m2, kanpoaldera, eguzkitsua. Bizitzera sartzeko. Deitu: 943 331 337

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura...

Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

## Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:00ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

## † JOSE MIGUEL TORRECILLAS ETXEBARRIA

Atzo hil zen, 58 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta

- Goian Bego -

Bere emaztea: Gema Salaberria; seme-alabak: Ane eta Iñaki eta Amaia; gurasoak: Maximo (†) eta Manoli (†); ezkon gurasoak: Alejandro eta Teresa (†); anai-arrebak: Anjel Mari, Juan Mari, Arantxa, Jose Luis, Lourdes eta Mari Axun (†); ezkon anai-arrebak, osaba-izebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzela **GAUR, ASTELEHENA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILEA** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2017ko ekainaren 19an

OHARRAK: Gorputza Errekalde auzoko VASCONGADA EHORZKETA TANATORIOAN egongo da gaur eguerdiko 11:45ak arte.



## MIGUEL TORRECILLA

ZIKUNAGAKO DANBORRADAko KIDEA

BETIRAKO GURE OROIMENEAN,

AGUR ETA OHORE!



## JOSE MIGUEL TORRECILLAS ETXEBARRIA

Alaitasunaren iturritik edan genuen elkarrekin oroimenean izango zara zu beti gurekin.

**SALABERRIA LEHENGUSUAK**

Hernanin, 2017ko ekainaren 19an

## JOSE MIGUEL TORRECILLAS ETXEBARRIA

Maitasuna ez da inoiz itzaltzen. Eta inoiz itzaltzen ez delako, gogoan zaitugu.

**SALABERRIA APEZETXEA SENDIA**

Hernanin, 2017ko ekainaren 19an

## MARIA PILAR ROMERA IGLESIAS

Kantuz sortu naiz eta kantuz naiz bizi, kantuz igotzen ditut nik penak ihesi.

**KANTUZ**

Hernanin, 2017ko ekainaren 19an